

## Zozketaren xedea

Zozketaren xedea da UniverSal ikerlanean parte hartu dutenei **40 euroko 375 bono eskuratzeko aukera ematea erreprografian edo ikas materialean erabiltzeko**, eta horren bidez, jarraipen inkestetan ikasleen parte hartzea eta atxikimendua sustatzea.

## Parte hartzeko baldintzak

UNIVERSAL ikerlanean parte hartu dezaketen ikasle guztiak har dezakete parte zozketan, baldin eta ikerlanaren bigarren urteko inkesta bete badute.

Parte hartzea doakoa da.

## Egutegia

Zozketan parte hartzeko epe-muga ikerlanaren web orrian argitaratuko da: [www.estudio-universal.net](http://www.estudio-universal.net). Oinarrietan jasotzen denari jarraituz, saridunak ausaz aukeratuko dira, eta zozketaren eguna parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten hautagaiei helaraziko zaien deialdian argitaratuko da.

## Funtzionatzeko arauak

Ikasleak zozketan parte hartzeko onarpena egitean jaso duen zenbakia izango da zozketarako erabiliko dena. Parte hartzaile bakoitzak zenbaki bakarra jasoko du.

Zozketan parte hartzen dutenen artean, 375 zenbaki irabazleak ausaz aukeratuko dira. Saritutako zenbakiak web orrian argitaratuko dira: [www.estudio-universal.net](http://www.estudio-universal.net). Ez dira inola ere argitaratuko identifikazioko datu pertsonalak, parte hartzaileei esleitutako zenbaki sarituak argitaratuko dira bakar-bakarrik.

Saridunen zerrenda berretsi ondoren, irabazleei izen-emateko formularioan emandako helbide elektronikoan jakinaraziko zaie saria nola jaso.

Sarituak saria jasotzeko eskubidea galduko du, baldin eta zozketa egin eta 15 eguneko epean erantzuten ez badu.

## Lege-baldintzak

Zozketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar.

Zozketa Fundació Institut Mar d'Investigacions Mèdiques-ek (hemendik aurrera, FIMIM) sustatuta egin da.

Parte hartzaileek baimena ematen dute FIMIMek datu pertsonalak erabil ditzan, honako xede hauekin:

- Zozketa kudeatzea.
- Parte hartzeko baldintzak betetzen ote diren berrestea.
- Parte hartzaileekin harremanetan jartzea zozketaren edozein alderdi kudeatzeko: parte hartzeko eskabidea zuzentzeko, oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen ez direla esateko, edo antzeko beste edozein egoera.
- Zozketaren saridunekin harremanetan jartzea sariak banatzeko.

Zozketa dela eta, FIMIMek erabiliko dituen datu pertsonalak helburu horrekin erabiliko dira bakar-bakarrik, eta ezereztatuko dira behin zozketa egin ondoren.

Parte hartzaileek FIMIMri ematen dioten datu pertsonalak bere jabetzako fitxategi automatikoan sartuko dira eta norberaren datuen babeserako legediak arautzen duenaren arabera tratatuko dira.

Arestian aipatutako xedeekin FIMIMi emandako datuak eskuratu, aldatu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeak zozketan parte hartzeari uztea dakar, baldin eta eskubide horietakoren bat gauzatzeak FIMIMi datuak erabiltzea eragozten badio nahiz eta oinarrietan aurreikusitako xedeekin erabili. Aipatutako eskubideak gauzatu nahi izanez gero, honako helbide elektronikoa honetan jakinarazi behar da: [info@estudio-universal.net](mailto:info@estudio-universal.net).

Ez da inola ere ulertuko aurreko prozeduraz erabilitako ezabatzeko edo aurkatzeko eskubideek, esan gabe, UNIVERSAL ikerlanean datu pertsonalak tratatzeko baimena baliogabetzen dutela; hala nahiko balitz, espresuki jakinarazi beharko litzaioke IMIM Fundazioari.